

## HITZ-ELKARKETA / 2

Hizkuntza batek estandarizazioari ekiten dionean, lehenik, soziolinguistek *kodifikazio* deitu diotenari aurre egin behar dio; hau da, aldaera bat aukeratu estandarerako, eta estandar horren forma idatzia, morfologia, lexikoa, gramatika... zein izango den erabaki. Horixe egin zuen euskarak Euskaltzaindiaren gidaritzapean Arantzazuko kongresuaz geroztik.

Baina horren ondoren beharrezkoa izaten da *elaborazioa*: araua, hasierako kodifikazioa aldatu eta egokitzea, hizkuntza aldi bakoitzeko beharretara egokitzeko. Terminologia beharrek leku nabarmena hartzen dute elaborazio fasean.

Oso ongi ikusi zuen hori Koldo Mitxelenak, “Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen formak” baitzen Arantzazuko kongresuan aurkeztu zuen txosteneko puntuetako bat:

“Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira (...) Euskal hitzak sortzean (...) gogoan eduki dezagun beti, premiaz gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan baitugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez, batez ere. Noraezekoa du hizkuntzak sor-iturri horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu”. (Koldo Mitxelena: “Ortografia”, *XIII Euskera*, 1968 [http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua\\_0000.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0000.pdf), )

Horregatik eratu zituen Euskaltzaindiak hiru azpibatzerde Hiztegegintza batzordearen azpian -OEH (*Orotariko Euskal Hiztegia*), LEF azpibatzerdea (Lexikologia Irizpideak Finkatzeko azpibatzerdea) eta EEBS (*Egungo Euskararen Bilketa Sistemikoa*).

Lexikologia Irizpideak finkatzen saiatu zen, beraz, LEF azpibatzerdea. Hau da, hitz berriak sortzeko euskarak nolako moldeak erabili dituen aztertzen:

“Hau da, beraz, LEF Batzordearen egitekoa: hitz berriak eratzeko euskal bideak aztertu eta jorratzea. Eta bi baliabide nagusi aipatu ditugunez, bi pausotan burutu asmo du LEF Batzordeak bere lana, hitz-eraketa delarik lehen aztergaia (...) Beronekiko azterketak amaitu ondoren ekingo zaio bigarren atalari, hots, eratorpen edo deribazioaren azterketari” (*Hitz-elkarketa/1*).

Mitxelenak esan bezala, kontuan harturik hitz-elkartzea genuela biderik oparoena, horri ekin genion. Ordurako bagenuen Mikel Zalbidek urtetan bildutako corpus aberatsa, ehun liburutik gora arakatu eta haietatik ateratako hitz elkartuek osatzen zutena. Bagenuen, halaber, lehen sailkapen-proposamena. Eta horrela hasi ziren azpibatzerdeko kideak hitz elkartu mota bat eta bestea aztertzen. Jardunaldietan aurkeztu genuen gure lanaren emaitza eta hango eztabaidarekin aberasturik, ondoren argitaratu.

Horrela sortu ziren:

- *Hitz-Elkarketa/1* 1987, Hitz-elkartuen sailkapen saioa osorik eman zuena (eta bost hitz elkartu mota bildu zituena). 1986ko ekainaren 26an eta 27an Beloken eta 1987ko urtarrilaren 30 eta 31n Plentzian eginiko Jardunaldietan aurkeztutako lanak dira guztiak.
- *Hitz-Elkarketa/3* 1991, 1988ko irailean eta azaroan, hurrenez hurren Gernika eta Uitziko Jardunaldietan landutako beste hamabi hitz elkartu mota jaso zituena.
- *Hitz-Elkarketa/4*, 1992, bi zati dituena: marratxoaren auzian argibide bila, lehenak euskalgintzako hainbat jenderi egindako inkesta biltzen du. Bigarrenak, hitz elkartuen osaera eta idazkerari buruzko argibideak eta azalpenak.

Nabaria da *Hitz-Elkarketa/2* falta dela, gaur aurkeztera gatozen lana. Luze jo du *Eguzki-lore* izena eman genien elkartearen azterketa argitaratzeak. Batetik, elkarte-mota konplexuena ere badelako: hiru jardunaldi behar izan genituen sail horretako elkarteak aztertzeko, 1987an eta 1988an Zarautzen, Leitzan eta Bidarrain egin genituenak. Bestetik, ez zen erraza horrenbeste txostengileren lanei batasuna ematea. Elixabete Perez Gazteluri zor diogu gaur aurkezten den lana; jardunaldietako txostenak osatu, orraztu eta testu bakarrera ekarri izana. Baina lanak argitaratzeko hogeita lau urte behar izanak ere baditu bere alde onak; bitartean eskuratu ditugun teknologia berriei esker, beste modu bateko argitalpena duzue esku artean. Eta hamar mila adibide baino gehiago eskura.

Nik baino askoz hobekiago kontatuko dizue, ordea, Elixabete Perez Gazteluk *Hitz-Elkarketa/2* liburuak zer dakarren.

Donostian, 2014ko uztailaren 3an

Miren Azkarate